



ozken zenbakio



..kioskoan salgai..

dotoreen zenbakio

aldizkariak

sexuak

internet

literatura

zinema

musika

kirolak

protagonistak

fotomaton

albisteak

iruditan

beste atalak

Buletina jaso

**bidali**

**harpidetza egin**

**bilatu**

literatura | liburuen kritikak

antolatu honi jarraiki:

131. zenbakia | 2012/07




**MARTUTENE**

**Ramon Saizarbitoria**

- Testua: Irati Murua -

Saizarbitoria eduki handiko liburu batekin etorri zaigu. Mamiatsua gaietan, mardula deskribapenetan, kritiketan... lan bikaina, dudarik gabe! Izan ere, kasualitatea al da bost protagonisten artean Abaitua ginekologoa izatea, eta Julia, aldiz, itzultzailea? Ez, ez da kasualitatea, jorratutako gaien artean gizonek emakumeekiko duten ezagutza falta oso presente baitago, eta errealtatea islatzeko hitza zein hizkuntza erabiltzen ditu. Ongi neurtutako eleberria dugu, eta zeresana emango du, ziur.

131. zenbakia | 2012/07




**EZER GEHIAGO BEHAR GABE**

**Karlos Linazasoro**

- Testua: Irati Murua -

Xabier Lete Sariaren lehen edizioan saritutako poema bilduma dugu Karlos Linazasororena, eta idazlearen idazkera jaso eta dotorearen erakusle da. Gaietan nahiz terminologian ez da bereziki berrikuntza zalea. Tonu nostalgikoz deskribatuko dizkigu sentipenak, metaforetan naturako elementuak erabiliz eta literaturako gai estatikoen inguruko hausnarketak eginez.

131. zenbakia | 2012/07




**DORIAN GRAYREN ERRETRATUA**

**Oscar Wilde, Itzultzailea: Aitor Arana**

- Testua: Irati Murua -

Basil Hallwardek Doriani erretratu bat egin dionetik, soilik iburak kezkatuak bizia da gaztea. Orduan Lord Henry ezagutuko du, eta hark esandakotik abiatuta, edertasunarekin obsesionatuko da Dorian; betiko gazte mantendu beharrak itsutuko du. Aldiz, erretratu zahartzen hasiko da, eta pixkanaka amaiera tragiko baterantz amilduko da protagonista. Idazle irlandarrak 1890ean argitaratutako liburu nahiko surrealista den arren, gai aldetik gaur egungoa izan liteke.

130. zenbakia | 2012/06



**"BAITA HONDAKINAK ERE"**

**Inigo Astiz**

- Testua: Maitane Legarreta -

Gai, gogoeta eta sentimendu askoko poema liburu idatzi du iruindarrak. Olerki originalak egin ditu, eskaileretako argiaren joan-etorritik sortutakoa, esaterako: "Eskaileretako argiari sakatu eta bertan gelditu naiz ikustera noiz suposatzen nauten kanpoan, noiz behar nukeen beste inon, agian beste inorekin, edo behintzat ez hemen: bakarrik, galdi, isilik". Hunkigarriak dira, besteak beste, Euskal Herriari buruzkoa, eta amak bere errautsak non botatzea nahiko lukeen aipatzetik abiatzen dena.




agenda

harpidedunen zuloa

bideoak



Xabier Omazabal traceur-a

**"NI, VERA"****Ixaso Martin Zapirain***- Testua: Maitane Legarreta -*

Martina ez dago ongi, erotzeko zorian dela uste du. Ez daki zer gertatzen zaion, ezta nola konpondu ere. Mutil-lagunak bere esku den guzian laguntzen dio, baina berak ere ez daki zer egin, eta psikologoarengana joateko konbentzitu du. Arazoa konpontzeko irtenbiderik topatzen ez duenez, psikiatrikoan bizi izan zen birramona Verari buruzko informazioa topatzen saiatuko da Martina, berak zer duen jakiten lagunduko diolakoan. Kontakizun ausarta idatzi du donostiarrak.

&lt;&lt; 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | ... &gt;&gt;



gunearen mapa

www.goztezulo.com · info@goztezulo.com · 943 45 72 50

lege oharra

RSS

diseinua &amp; garapena: eragin.com